■ Bertsolaritzak bizi duen *boom*-a neurri batean azken 30 urteetan landutakoaren fruitua da. ■ Bertsolaritzak azterketa sakon baten beharra du bere proiektu espezifikoa eraikitzeko.

SAIOAK

asteartea 17

BEASAIN
13.00etan eta 19.30etan
S. Lizaso, Egaña, Mendizabal, Sarriegi

osteguna 19

OIARTZUN
Elizalde auzoan, plazan, 19.00etan
Oiartzungo bertsolariak
Sagardo, bertso eta trikiti festa

ostirala 20

MALLABIA
Bertso afaria
21.00etan
Peñagarikano, Sorozabal

ARRIGORRIAGA
Bertso afaria
20.30etan
Jon Lopategi, Respaldiza

OIARTZUN
Bertso afaria
Bizardi elkartean, 21.00etan
S. Lizaso, Agirre, J.M. Lopez

ARETXABALETA
Kiroldegian, 22.00etan
J. Sarasua, Amuriza, Egaña
Elkarrri-k antolatuta

IRURA
Bertso afaria
Gazte Alaiak elkartean, 21.00etan
Lazkano, A. Lopategi

larunbata 21

PASAI DONIBANE
Bertso afaria
Itxas-Mendi elkartean, 21.00etan
E. Arozena, U. Agirre

IRUÑEA
Bertso afaria
Arrano elkartean, 21.00etan
Amuriza, Telletxea, M. Arozena

BARAÑAIN
Bertso bazkaria
Haizea elkartean
Telletxea, E. Arozena

BILBO
Bidebarrieta liburutegian, 12.30etan
Loquillo y los Trogloditas: Egaña, Iturriaga, A. Lopategi, Sarasua Gaijartzailea, Josu Telleria

AIZARNA
Bertso afaria
Gazteen zentroan, 21.00etan
Gorrotxategi, Zeberio

ZEGAMA
J. Sarasua, Mendizabal
Intsumisioaren aldeko jaialdia

GETARIA
Zineman 22.00etan
S. Lizaso, Murua, Egaña, Peñagarikano

igandea 22

LEITZA
Herriko plazan, 12.30etan
Elizagoien, E. Arozena

OIARTZUN
Udaletxeko areto nagusian
Manuel Lekuona Bertso-Paper Lehiaketaren sari banaketa

IRUN
12.00etan
Egaña, Euzkitze

BILBO
Arriaga antzokian, 11.30etan
Enbeita, Iturriaga, Elortza, A. Lopategi, J. Sarasua, Irazu

«Bertsolaritzak proiektu propioa behar du»

Iñaki Larrañaga Siadecok bertsozaletasunari buruz egindako azterketaz mintzatu da

I. ELLAKURIAGA / **DONOSTIA**

Bertsozaletasunaren diagnostikoa egina dago. 1991ko udazkenean hasi eta iazko Txapelketa Nagusiaren ostean azken datuen pilaketa egin eta zegozkien txostenak bukatu ditu Siadecok Bertsolari Elkartearen enkarguz. Zortzi txostenek osatzen dute bi helburu nagusi izan dituen azterketa: bertsozaletasunaren diagnostikoa egitea eta bertsolaritzaren geroari buruzko proposamenak eskaintzea. Burututako lana mintzagai izan dugu Iñaki Larrañaga Siadecoko zuzendariarekin.

EGUNKARIA.— Zer izan duzue aztergai?

IÑAKI LARRAÑAGA.— Argi geratu behar dena zera da: ez dugula bertsolaritza aztertu bertsozaletasuna baizik. Azterketa horrek bi zati nagusi ditu. Lehena azterketa koantitatiboa dei genezake eta bertsozaleen zein euskaldunen artean bertsozaletasuna zenbateraino errotua dagoen izan dugu aztergai. Ondoren azterketa koalitatiboa egin dugu. Eztabaida mahaiak osatu ditugu, bertsolaritzarekin harremanetan daudenekin eta bertsolaritzarekin inolako harremanik ez dituztenekin.

EGUNKARIA.— Zer ondorio ditu lehen azterketak?

LARRAÑAGA.— Bertsolaritzak gertaera sozio-kultural gisa garrantzi handia hartu du. Horren adierazle, zenbait datu ditugu. 1992an 715 bertso saio egin ziren eta horietara 250-300 mila entzule inguru hurbildu ziren. Horrez gain, euskaldun jendea aztertuta, gehiengoa bertsozalea dela ikus daiteke. Datuen arabera, euskaldunen % 15 bertsozale amorratua da, % 55 moderatua eta % 30 ez da bertsozalea. Hala ere, denek onartzen dute bertsolaritza ez dela zaharkitutako gertaera sozio-kulturala.

EGUNKARIA.— Zein dira bertsozale moderatuaren ezaugarriak?

LARRAÑAGA.— Talde hau osatzen duten herritarren gehiengoa emakumezkoa, adin ertainekoa, ikasketa oinarrizkoak eta ertainak burutu dituena, langilea, jatorriz euskaldunak, kirolzalea, noizbehinka bertso saioetara joaten dena eta bertsoa egiteko gaitasun miragarrian oinarritzen dute beren bertsozaletasuna.

EGUNKARIA.— Bertsolaritzaz hitz egiten den bakoitzean *boom* hitza aipatzen da. Egokia al da?

LARRAÑAGA.— Asko aipatzen da bertsolaritza orain sortutako *boom*-a dela eta puztu den beste hustu egingo dela esaten hasi dira batzuk. Nire ustez, ukaezina da eta datuak froga ditugu bertsolaritzak gizartean gero eta presentzia handiagoa duela. Baina hau ez da momentuko gauza bat bakarrik. Bertsolaritzak azken 30 urteetan gertaera sozio-kultural gisara bide bat irekiz joan da eta etengabe piezak jarriz joan da. Orain lan horren fruituak jasotzen ari da, nahiz eta horrekin hainbat faktorek bultzada handia eman dioten. Hala ere, oraindik badago zertan lan egin.

Iñaki Larrañagaren ustetan, bertsolaritza azken 30 urteetan eginiko lanaren fruituak ari da jasotzen. A. BAYO

▼

Ikuspegi soziolinguistikotik bertsolaritza euskal hizkuntz komunitatean fenomeno integratzailea dugu. Hizkuntzaren inguruan berez ezberdinak garen hainbat jende biltzen gaitu bertsolaritzak.

EGUNKARIA.— Azterketa koalitatiboan zer da nabarmen?

LARRAÑAGA.— Hor ikusi ahal izan dugu bertsolaritza gertaera guztiz heterogenoa dela. Bertsolaritzari buruz hainbat iritzi eta zenbait kasutan kontrajarriak direnak jaso ditugu. Hala ere, nik uste, ikuspegi soziolinguistikotik bertsolaritza euskal hizkuntz komunitatearen barruan fenomeno integratzailea dugu. Hizkuntzaren inguruan berez ezberdinak garen hainbat jende biltzen gaitu bertsolaritzak.

EGUNKARIA.— Diagnostikoaren ostean proposamenak datoz. Zein proposamen egiten dio Siadecok Bertsolari Elkarteari?

LARRAÑAGA.— Proposamen nagusi modura guk uste dugu bertsolaritzak bere proiektu espezifiko eta propioa egin beharko duela euskal kulturgintzan zoritxarrez oraindik egiteke dagoen proiektu orokorraren barruan. Bertsolari Elkarteak proiektu propioa diseinatu beharko du eta horretarako baditu berekin hainbat tresna eta baliabide.

PUNTUZ PUNTU

Azterketa sakona

Bertsozaletasunari buruzko azterketa bukatu ostean, Bertsolari Elkarteari etorkizunean zein pauso ematea komeni zaion proposatu dio Siadecok.

- Bertsolari Elkarteak, eta bertsolariak bereziki, beraiek diseinatutako proiektua izan behar dute. Hala ere, zenbait zalantza argitzeko dago: nolakoak izan behar dute bertsolarien eta Elkartearen arteko harremanek? Zein funtzio edo inplikazio du bakoitzak proiektuaren egiturakетan?
- Mezu hartzailearen azterketa egin behar da. Bertsozale mota ezberdinak daude adin, inplikazio, geografia, ikasketa maila, eta abar kontuan hartuz. Komeni al da denei mezu bera zuzentzea? Zein puntutaraino dibertsifika daiteke mezua?
- Mezuaren edukinak ezberdina izan behar du bertsozale guztientzat? Zer eskaini behar zaio bertsozale amorratuari eta ezer ez dakienari?
- Bertsozaleak bertsoekiko duen atxikimendua nola indartu daiteke? Bertsoa neurtzen jakin dezan tresna berriak eskaini behar zaizkio.
- Bertso saio ezberdinek tratamendu bera merezi dute? Nori dagokio bertso saioen egokitasunaren kontrola, antolatzaileei edo Elkarteari?
- Komunikabideek zer funtzio bete behar dute? Irrati, telebista eta prentsa idatziak era berean jokatu behar dute?
- Bertso eskolak, bertsolaritzan pieza klabeak izanda, nori dagokio koordinazio lana? Zein neurritaraino?
- Testuingurua aztertu behar da. Bertsolaritza hipertrofia da edo beste kultur jardunak egoera atrofikoa bizi dute?